

◦ Jose Manzaneda, Euskadi-Kuba ◦

«Kubak ez du keinurik egin behar»

Zeresan ugari eman dute duela gutxi Kuba eta homosexualitatearen inguruan ETBko *Pásalo* telesaioan emandako iritziek. Kubak pairatzen duen manipulazio informatiboaren beste atal bat baino ez da. Halakoak salatzen hogeit hamar urte beteko ditu aurten Euskadi-Kuba elkarteak. Elkarteko Jose Manzanedarekin mintzatu gara.

ALVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN

Argazkiak: Iñigo Azkona

Kubaren gaineko manipulazio informatiboa iraultza bera bezain zaharra da. Ezagunak dira jomugak: gerontokrazia, demokrazia eza, giza eskubideei muzin egitea... Zergatik kritika bortitz hauek?

Funtsezko arrazoia ideologikoa da. Munduan hegemonikoa den sistema kapitalistaren alternatiba —edo eredu ezberdina, behintzat— islatzen du Kubak. Hirugarren Munduko testuinguruan, are nabariagoa da Kubak suposatzen duena eta, hasieratik, behin eta berriro saiatu dira eredu hori deuseztatzen AEBen eta kapitalismoaren botere ekonomikoa zein ideologikoa ordezkatzeko dutenak. Asko dira erabiltzen diren baliabideak. Bata indar militarra da, Cochinos badiako inbasioarena, besteak beste. Beste bat ekonomikoa: 1962an ezarritako blokeoa, oraindik ere leundu ez dutena. Bestalde, hedabideen bidez, gezurren bidez, eta Kubako egoera lekuz kanpo utziz, zilegitasuna kendu nahi diote Kubako ereduari. Kezka Kubako ereduak dute. Noam Chomskyk esaten duenez, Kubak aukera desberdina erakusten dio nazioarteko kapitalari, erabat onartezina dena, jakina. Nazioarteko botere ekonomiko horrek hedabideen gaineko kontrol osoa dauka. Hein handi batean, hedabideak enpresa pribatu handiak baino ez dira; ideologia baten (kapitalismo liberala) zerbitzura. Hedabide publikoak ideologia bera defendatzen duten gobernuen esku daude. Manipulazio informatiboaren jatorria, beraz, gerra ideologikoa da, beste eredu bat eraikitzen saiatu den herri txiki baten kontra.

“Manipulazio informatiboaren jatorria beste eredu bat eraikitzen saiatu den herri txiki baten kontrako gerra ideologikoa da”

Zeintzuk dira Euskal Herriko hedabideetan politika horri eusteko zioak?

Nire ustetan, eragin handiko faktorea izan liteke telesaio zehatz bat nork zuzentzen duen. *Pásalo* telesaioa aurkezleei, esaterako, patrio ideologiko bat dagokie eta Kuba ez dute gogoko. Aurreiritziz beteta daude. Batek daki, Kuban egonak diren aurreiritzi guztiak eta euro-zentrismoa soinean zituztela, eta ikuspuntu europar horretatik izandako sententziak erreproduzitzen dituzten. Berdin egiten dute solaskideek: Kubak nola baiteko Suedia tropikala izan behar du; Kubako osasungintza, adibidez, bertan behera laga behar da gurea bezalakoa ez delako, edo beren lan egiteko moduak ez du ezertarako balio, ez baita hemengoa bezalakoa. Kuba, inguruan duenarekin konparatu behar da, sekulako blokeoa pairatzen duela kontuan izanik. Baldintza hauei kasu eginez, txarto ala ongi egiten ari diren eztabaidan jar daitezke; ez dut uste bidezkoa denik Kubarekin zeri-

kusirik ez duten eremu geografikoekin eta egoerekin konparatzea. Dena dela, *Pásalo*-ko taldean sentsibilitate handiagoko jenderik badagoelakoan nago. Izan ere, kexa adierazteko bidalitako posta elektronikoak direlata, Kubako homosexualitateari buruzko beste telesaio bat egitea horren isla da; “kale egin dugu, hura konpontzeko zerbait egin dezagun” pentsatuko zuen baten batek, nahiz eta asmo ona ezerezean geratu, berriro kale egin dutelako. Egin zuten beste telesaio hartan, aukera sexualari dagokionez ez dute-



la inor espetxerutzen argi geratu zen. Hala ere, aurkezleak esan zuen duela hamabost urte homosexualak ikerketak egiteko erabiltzen zituztela, eta hori guztiz faltsua da. Jarduera homofoboak badaude Kubako gizarteetan, baita Mexikon, Argentinan, El Salvadorren edota Euskal Herrian bertan ere. Dena den, ez dituzte kontuan izaten gizarte kubatarrean emandako aurrerapausoak, ondoko herrietan parekorik ez dutenak: sexu aldaketa ebakuntzak, kasu, estatuen kontura egiten dira; nik dakidanez, Andaluzian baino ez dagoen aukera. Kuba bezalako herri batentzat historikoa da hori, eta ez diote inolako garrantzirik ematen.

Emigrazioa dugu Kuba erasotzeko erabiltzen den argudioetako bat. Solaskideek esaten

Jose Manzaneda, Cubainformación hiruhilabetekaria eskutan duela. Egunerokoaren berri emateko webgunea daukate.

dute politikak bultzatutako emigrazioa dela, krisialdi ekonomikoak ez duela eraginik.

Kubako emigrazioaren zerbakiak ondoko herrietakoak bezalakoak dira. Telebistan okerreko datuak, maltzurak, ematen dituzte. Barregarria bada ere, 3.000.000 erbesterratu daudela esaten dute. AEBetako Gobernuak esaten du 800.000 direla Kuban jaioak direnak. Bestelakoa da ondorengo kasua, haiek ez baitira emigranteak: milioi bat eta erdi kubatar daude munduan; Kubako populazioa, guztira, hamaika milioi eta erdikoa da. Latinoamerikako egoerari so eginez, oso zerbaki arruntak edo txikiak dira horiek. Bestalde, jendeak Kubatik alde egiteko dituen motiboak beste inon dituzten berak dira: gaur egungo motiboak ekonomikoak dira, are

Jolastoki

Makalen etorbidea 24, Neguri (48992)
Tel.: 944 912 031 • Getxo, BIZKAIA
www.restaurantejolastoki.com





gehiago blokeo ekonomikoa kontuan izanez gero. Kubako egitura ekonomikoa ez dago estatu garatuenetan bezain dibertsifikatuta eta baliabide gutxiago dago krisialdiari aurre egiteko. Ez da harritzekoa, beraz, Kuba bezalako herri batean, non denek dituzten ikasketak, jendeak alde egitea etorkizun hobekoaren bila. Emigrazioan oso jarrera arrunta da, ez diogu beste esanahirik zertan bilatu. AEBetara joaten dira Kubatik gertu daudelako, gizatalde kubatarra dagoelako. Halaber, AEBetako legediaren arabera lurra zanpatzen duten guztiek bertan geratzeko eskubidea daukate, beste lekuetako emigranteek ez duten pribilegioa.

Zer egiten duzue manipulazio informatiboaren burbuila apurtzeko?

Aurten hogeitun beteko dituen Euskadi-Kuba elkarteak Kubaren adiskide da, mundu osoan diren bi milatik gora taldeetako bat. Kubako iraultzarekiko elkartasun talde klasikoa da. Hainbat gauza egiten ditugu maila ezberdinetan. Alde batetik, garapenerako kooperazioa lantzen dugu; Kuban hamabost ekimen ditugu abian: laborantza ekologikoa, abeltzaintza, eguzki energia edota etxebizitzak eraikitzea. Sentsibilizazioa dugu beste sestra bat, Kubako benetako egoera aditzera emateko egiten ditugun formatu klasikoko ekimenak: hitzaldiak, jaiak, kontzertuak, erakustaldiak eta abar. Hirugarren arloa hedabideena da eta *Cubainformación* egitasmoa dugu haren bihotza. Ez dugu nahi Euskadi-Kuba elkartearen beste egitasmo bat izatea, elkartasun mugimendu ororena baizik. Lau euskarri edo zutabe ditu: sare bidezko telebista, Bilboko Tas Tas Irrati Libreko estudioetan ekoizten dugun irratia –Europako eta Amerikako hainbat irratitan emititzen dena–, hiruhilabeteko aldizkari bat eta eguneroko albisteak jaso-

Euskadi-Kubako lan taldeak hiru arlo ditu ardatz: garapenerako kooperazioa, sentsibilizazioa eta hedabideak.

“Ingurukoekin konparatu behar da Kuba, dituen baldintza bereziak kontuan hartuz. Ez da bidezkoa zerikusirik ez duten eremu geografikoekin nahiz egoerekin konparatzea”

tzen dituen webgunea. Ez pentsa hauek guztiak Euskadi-Kubakook egiten ditugunik, beste taldeetako jendea ere badago; Mexikotik, Argentinatik, Kubatik, AEBetatik lan egiten duen pertsona asko.

Nazioarteko elkartasuna dela-eta, euskaldunok oso estima handian kokatu ohi dugu gure burua. Pentsatzen dugu Kubarekiko grina sentimendu hegemonikoa dela hemen. Egia al da?

Apurka-apurka, hobetzen ari gara. Egitasmo gehiago izan

ahala, gero eta presentzia gehiago daukagu, baina ezin ditugu ez errealtatea ez Kubarekiko adiskidetasun poltsak mitifikatu, azken batean betiko parametroetan mugitzen baitira. *Cubainformación* egitasmoaren bidez, hedabideekin gero eta mesfidantza handiagoa daukan jendearengan eraginik izan dezakegu, manipulazioa ukatzen ez duen eta gaia ezagutzen ez duen arren arreta jartzen digun jendearengan. *Pásalon* Kubako gaia mahairatu gure sentsibilitatea duen solaskideren bat eraman izan balute, besteek esaten zutenaren kontrapuntua izango zukeen. Egun hartan, baina, ez zegoen inor. Tsunamiaren kontrako surfari baten borroka da. Beste telebista kateetan, berriz, horrelakorik ere ez dago. Obamaren ustezko erreformei buruz egindako telebista guztietan Kubako Gobernua eraso, besterik ez zuten egin.

Pásalon, behintzat, guri elkarrizketa egin ziguten, guztira telebista %9.

Zintzoak al dira Obamaren ekimenak?

Obamaren inguruan itzelezko propaganda kanpaina garatzen ari da. Sistema inperialista yankeari interesatzen zaio Obama, Bushen egindako guztiak porrot ekonomikorantz eta militarerrantz eramaten zituelako. Ondo

deritzet iragarritako neurriei, baikorrak dira, blokeoaren egitura deuseztatzeko lehenbiziko aurrerapausoa da. Hala ere, 50 urteko egitura da eta ez dut uste aldaketa gehiagorik egongo denik. Oso mezu sinplea da: “Zu itozteko erabiltzen dudana soka apur bat askatzen badut, aldatzeko beharra duzu; azken 50 urteotan esan dizudan guztia (merkatu ekonomia eta nireak bezalako hauteskundeak ezartzea) hitzez hitz bete behar duzu”. Kubak ez du inolako keinurik egin behar. Egin behar dutena egingo dute, baina ez azaleko murrizketak desagerrarazi dituztelako. ■